

OINORDEA

Eneko Malaxetxebarria

Bilbao, 13 urte

Izugarrizko hotza egiten zuen Antartidako toki galdu hartan. Hotz hura hezurretaraino sartzen zitzaidan, nirekin inolako errukirik izan gabe. Izotzaren kulpaz gogortuta geratzen ari nintzen, ibiltzeko indar barik. Gainera, eskuak guztiz jeltatuak nituen eta ezinezkoa suertatzen zitzaidan behar nuen besteko indarra egitea, eskuan neramatzan instrumentu geografiko eta hainbat gauza altxatu ahal izateko. Pausaldika ibili behar nuen, lurralde izoztu hartako haran, mendi eta lakuetan zehar.

Nire lagun bakarra, aste bat lehenago aurkitu nuen otsoa zen. Harrigarria iruditu zitzaidan lurralde izoztu haietan izaki bizidunik topatzea, baina, esaten den bezala, bi inurrik, inurrategitik galduta daudenean, errazago topo egiten dute inurategi barruan baino. Hala gertatu zitzaigun guri, kasualitateak eta ezaugarri berdintsuak izateak elkarrarazi gintuen 16.000.000 Km² ko eremu izoztu baten.

Otso hark, ez zuen guk eredutzat dauzkagun otsoen antz txikienik ere. Zuri-zuria zen. Egia esan, ez nekien elurak ematen zion kolore hori edo ez, baina itxuraz halakoa zen. Gorpuzkera luze eta meharra zuen, bere isats iletsuak bezala. Eta bere hankak giharre hutsak ziren. Han ez zegoen hezurrik ikusterik.

Begirada sutsua zuen, baina maitekorra. Ez zuen inolako erasokortasun izpirik azaltzen bere begietan. Harrigarria zen, benetan, bere laguntasuna, batzuetan, ahotik zintzilik, poltsa batzuk eramaten zizkidan eta.

Bidean aurrera gindoazela:

- Aizak hi! Ba al dakik zenbat ordu daramatzagun ibiltzen?

Erantzunik ez.

- Egia! Ahaztu zaidak ez dakiala hitzegiten! Berdin duk, elkar ulertzen diagu, ez da hala?

Otsoak harri eta zur begiratzen zidan ez zuela ezer ulertzen esan nahi izango bailuen.

Honelako eszenak askotan errepikatu ziren bidean zehar...

Halako baten, lur azpitik zetorren zarata arrarobat entzun zen. Aurrera jarraitu nuen inolako garrantzirik eman gabe gertakizun hari. Baina, berriro ere, entzun zen zaratots hura.

- Entzun al duk hori?

Tutik ere ez zen entzuten.

- Ikasiko al duk inoiz erantzunik ematen? Aspertuta nagok honela egoteaz -esan nion nahiko haserre.

Etsi-etsita, nire lagunari begiratu nion, eta hau, arretaz, zoluari begira ari zela ohartu nintzen. Orduan, nik, berak bezala, makurtu egin nuen burua:

- Arrakalatzen ari duk izotza! Kaka zaharra! Hanka egin dezagun!

Hala zen. Nork jakin zergatik edo zerk eraginda,

baina, izotza arrakalaz betea zegoen jadanik, eta laku hartatik alde egitea zen geratzen zitzaigun irtenbide bakarra. Korrika hasi nintzen, toki sendoagoa aurkitzeko asmoz, baina, ezinezkoa egin zitzaidan. Ene lagunari ez ordea, lasai asko baitzegoen izotz tinkoagoa zegoen toki baten. Abiada bizian jo nuen berarengana. Baina, korrikan nindoala, arrakala handiagotu egin zen izotzean zulo bat sortuz, ni bertan jausiaraziz. Ura zegoen azpian, hura hotza! Okerrena, ordea, berunezko tramankulu asko neramatzala zen. Eta ito beharrean izan nintzen, otsoarengatik izan ez balitz.

Lasterka batean, nire salbatzailea ni arrisku hartatik libratzera etorri zen. Hortzekin tira eginez, erori nintzen zulotik atera ninduen. Hura sortea nirea!

Gertakizun hau ospatu behar nuela iruditu zitzaidan, otso batek pertsona baten bizia salbatu izana ez baitzen askotan ikusten.

– To, salbatzaile bikaina egina hago, hemendik aurrera, Xalbatore deituko haut. Orain goazemak lotara, hori izango baita behar dugun gauzarik onena. Pozik nengoen.

Kanpain-denda barruan ametsetan nengoela, nirekin nekarren liburuaz gogoratu nintzen. Hainbeste itxaroten nuen hiriaren froga bakarra zen hau. Baina...

– Non dago liburua? – urduritasunak jota esnatu nintzen- Xalbatore, ikusi al duk liburua?

Otsoak betiko ezjakintasun aurpegia ipini zuen.

– Non sartu ote dut liburu madarikatu hori? – oihuka hasi nintzen - Ez zagok inon ere!

Bilatu eta bilatu, baina, ez zegoen libururik inon. Zitekeena zen putzu hartan liburu hura galdu izatea, eta hala izanez gero, amets guztiak zapuztuta geratuko ziratekeen. Izan ere, liburua baitzen bidaia honen arrazoirik nagusiena.

Nire aitak, hiltzen ari zenean hau esan zidan: “Har ezazu liburu hau. Belaunaldiz belaunaldi nigana heldutakoa da, eta orain, zeurea da. Kontuan izan, ez dela liburu soil bat, zure arbaso guztien ametsa da eta. Hemen, lurralde izoztu batzuetan hiri bat zegoela aipatzen da, aberastasunez eta bitxiz goraino betea zegoena. Hiri honek, errege bat izan zuen, eta haren ezpaleko gara gu. Berreskura ezazu zeuri dagokizuna.”

Eta hitz hauekin eman zuen bere bizia. Behin eta berriz nerabiltzan hitz hauek nire buruan: “Berreskura ezazu zeuri dagokizuna”. Orain liburua galduta nuen eta han zeuden mapa eta hiria topatzeko informazioa ere. Baina, nire buruari zin egin nion hiri hura aurkituko nuela bidean bizia emango banuen ere.

Hiri hura Ipar-Ekialdean kokatua zegoena besterik ez nuen gogoratzen. Orduan, birritan pentsatu gabe, kanpin-denda desegin eta iparorratzaren laguntzat norabide hori hartu nuen. Gauza guztien gainetik hara heldu behar nuen.

Aste bat igaro zen, liburua galdu eta gero, hiria aurkitzea erabaki nuenetik. Bidean aurrera, norabiderik aldatu gabe, kementsu jarraitzen nuen. Arazorik larriena jaki eza zen. Astebeterako bakarrik nuen. Gero eta zailago ipintzen ari zitzaidan heriotzaren aurkako borroka hura.

Aurrerantz jarraitzeak, arazo bat zuen oraingo honetan. Menditzarra zegoen nire aurrean eta hain zen zabala mendi hura, ezen ezinezkoa baitzen inguratzea tontorrera igo gabe. Argi neukan zein zen hartu beharreko bidea. Artez goraino! Igoera honek denbora asko galaraz ziezadakeen, hala ere, gogozko tokian maldarik ez.

Hasiera ez zen batere malkartsua eta aise jarraitu nintzaion bideari inolako oztoporik gabe. Baina, ibili ahala, mendia aldapatsuago bihurtu eta neke-tsuagoa suertatzen zen igoerari ekitea.

Azkenik, janari guztia xahututa, azken maldara heldu nintzen. Nekeak jota nengoen, otsoa ez bezala. Xalbatore, txit lasai zegoen, zebilen, mendia igotzeak ez baitzion inolako beldurrik ematen animalia gihartsu hari.

Elikagai, aire eta hotzarengatik arnas eztuka nenbilen, tontorra, metro eskas batzuetara, begi aurrean nuelarik. Zalantzan jartzen nuen ea gailurrera iristea lortuko nuen. Baina, esperantzak nituen.

Hilzorian ibili nintzen tontorrerainoko azken malda igotzean, eta azkenik, goraino heldu nintzen. Nire biziko azken arnasa ematen nengoelarik, burua altxatu, eta han urrunean ikusi nuen hainbeste itxarondako hiria! Gailurrean bertan eman nuen bizia. Otsoak, nire nahiak lehen aldiz ulerturik, hainbat belaunaldik amestutako hirira arrastaka eramane zuen nire gorpua eta bertan lurperatu.

Niri zegokidana berak hartuz...